



Lehendakariak iragarritako osasun-neurri berrien ondorioz, datorren larunbatean indarrean sartuko direnak, jarduera jakin batzuk berriro ireki ahal izango dira, eta, hortaz, ezintasunaren ondoriozko ezinbesteko espediente batetik mugapenaren ondoriozko ezinbesteko espediente batera pasatzeko aukera egongo da. Hori dela eta, enpresek ez dute mugaketaren ondoriozko beste espediente bat aurkeztu beharko, ondoren adieraziko dugun prozedurari jarraitu beharko diote.

Enpresek "nire karpetan" sartu beharko dute eragozpenagatiko ezinbesteko espedientean, eta, bertan, beste izapide bat markatzeko aukera izango dute: "Egokitzapena Mugapena". Aukera hori markatzean, "Efektu-data" sartu beharko dute, eta, horrekin batera, enpresaren memoria edo txostena aurkeztu beharko dute, lehendakariaren dekretu berria aipatuz, eta jarduera berriz hasteko arrazoi diren mugak zertan dautzan adieraziz.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 11n